

**2011KO EKAINAREN 8AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Zortzia.

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta hamaika.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamaikak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK:

- Aitor Aldasoro Iturbe
- Iñigo Arrese Artabe
- Arantza Gibelalde Iñurritegi
- Arantza Aseginolaza Azkargorta
- Malu Valles Fernandez
- Alfonso Segade Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Josi Insausti Mujika
- Begoña Lasa Royuela
- Julio Herreros Serna

ETORRI GABEAK:

- Fernando Boada Gonzalez
- M^a Pilar Vispo Chamosa
- Manuela Uranga Segurola
- Jon Kortaberria Lasa
- Joan Martin Aldaregia Etxebarria
- Julene Hidalgo Pérez

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2011ko maiatzaren 13ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek, PPko ordezkariak ezik onartu egin dute. Julio Herreros Serna, PPko zinegotziak ez du onartu bilera horretan legez kanpo dagoen plataformak parte hartu zuelako.

Horren ondorioz, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, EB)

Aurkako botoak: 1 (PP)

Abstentzioak: 0

Etorri gabeak: 6

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin, 2011ko maiatzaren 13ko akta onartu da.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamaikak eta hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.